AZILLA 7 Eguena
Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIA
Bilbao'kua ... ... 9,00 irko. iru ilez
Bilbao'atazkua.. 11,25 " "
Idazki-itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 112,50 " "
Beldayen itunduba

XXIII urtia // Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.135 zenbakija

Gayak

«Bide Onera»

Etxabe'taŕ Alberda antzeŕkigile trebiak idatzi eban antzeŕkijari, olantxe deritxo: "Bide Onera".

Iru ataletakua da, berau, ta eresi poliŕakaz ornidutakua.

Valle'taŕ Aurelen'en eresija dauko, pozik entzun, eta pozik txalotuten dan eresija euki be.

Antzeŕki-jai au iragaŕiŕa dago, datoŕen iganderako iragaŕiŕa... Saŕera - orduba ixentauta dago: aŕatsaldeko iru ta erdijak.

Antzeztuko daben antzokija, baŕiz, Campos Eliseos antzokija da. Antzoki au Bertendona txaidian, 3'gaŕen zenbakijan dago.

Beraz datoŕen igande aŕatsaldia alai ta pozik igazteko lekurik egokijena, antxe egongo dala uste dogu.

Antzezlarijak, be, gero, aukerakuak autu dabez: Bilbao'ko Euzko-Gastedi'ko "Oldargi"-taldekuak.

"Oldargi" ezaguna dogu. Ezaguna ta etxekua, elduten dan leku gustijetan txaloka ta xeraka aguŕtuten dogun etxeko kutuna.

Beraz, irakuŕle, datoŕen igandian bai-dakixu nora juan. Juan al-zarala, ez etxian geratu, ba...

Antzerkijak

Aspalditxubon euzko-antzeŕkijak askotxu ugariŕu dira.

Eta bai biaŕ be, geure gauzak, euzko-edestija ta abaŕ edatuteko biderik egokijena auxe da ixan be-ta.

Antzeŕkijak era askotakuak ixaten dira. Batzuk, baŕe-eragiŕekuak; bestatzuk, negaŕ-eragiŕekuak, eta abaŕ.

Eta guk, gustiŕarikuak biaŕ. Gixonaren bixitzea be olangoxia da, ba: negaŕ-baŕezkua.

Gauzak ondo yatoŕkuzanian, baŕe egiŕen dogu. Txaŕto yatoŕkuzanian, ostera, negaŕ.

Eta antzeŕkija gixa-bixitzea antzeztuten daben idaztija da: gixa-bixitzearen antzikuŕa, ispilua...

Edestijak be antzokira eruan biaŕ diran eŕi-jakintzak dira.

Oŕa, oŕ, "Libe" edesti oŕetako antzezkixun edeŕ bat.

"Libe" antzezkijan, edesti-idaztijan bertan baño be Mungia'ko gudaketa ikaragaŕija ta aren ondorenak, obeto ikusten dira. Idaztijan izkijak baño eztira ikusten, ba. Antzokijan, ostera, edestiko notiñak, eta arein egiñenak.

Edesti-idaztijan, irakuŕi bakaŕik egiŕen da. Antzokijan, baŕiz, entzun eta ikusi.

Idaztijak, irakuŕten dabenari baño eztautsa irakasten. Antzokijak bertaratuten diran gustijei.

Eŕijak zuzpeŕtu ta abeŕtzaletuteko zabalgunde-biderik omena, antzokija da, ta bai atzeŕi-zaletuteko be...

Beraz, irakuŕle, abeŕtzale, atzeŕi-zaletuten gaŕubezan autzeŕkixunei gudea egiŕeko, euzkel-zaletu ta abeŕtzaletuko gaŕubezan antzeŕkixunak ugariŕuten alegindu biaŕ gara.

Gure auŕetikuen aldiko Euzkadi, orain irurogei urteko Euzkadi, Irakuŕle, kutxa-baŕuban gordeta sitsak jaten eukiŕen eben eun-aldintsuzko janzki edeŕa lakua zan: iñori be erakusten ezeutsoen eunezko soñekua.

Iñori erakusten etxakan soñekua, baŕiz, aldintsubena ba-da be, iñok ezagutuge egongo da. Eta kutxa-baŕuban gordets, iñoz axeratu barik eukiŕen ba-da, baŕiz, sitsak jango dau, ta alpeŕik galdu.

Geure Euzkadi abeŕi maŕe ta aldintsubaz olango lotsagaŕikeririk jazo eztedijantzat, kutxa-baŕutik atara-egin biaŕ dogu, ta antzokijetara ta abaŕ eruan.

Euzkadi deritxon gure abeŕija, bera daŋ leŕdena, ikasija ta gixabide eredu-ereduba dalako, edonori erakusteko gai da: edonori begiko ixateko lakua... Senaŕgei ereduba, emaztegei begikua... ¡Erakutsi daigun, ba, erakutsi...!

Abertzaletasun bakana

—¿Zenbat urte?
—Zortzi.
—¿Ixen-abixenak?
—Iturburu-Makatzaga - Sasieta-Laubideta'taŕ Jon Iñaki.
—Beraz lau aldetatik euzkelduna...
—Euzkotaŕa bai, baña euzkelduna, ez.
—¿Euzkeraz eztakik?
—Ez jauna.
—¿Gurasuak bez?
—Gurasuak bai. Nire gurasuak euzkeldun utz-utzak dira, eŕderaz gitxi baño eztakijenak. Aŕiŕa-amameak be, euzkeldunak dodaz, eŕderaz baño anei bidaŕ euzkerea obeto dakijenak. Nik, ostera, eta nire anai-aŕebak be, euzkerearen apuŕik be eztakigu.

—Lotsagaŕija dok ori. Aŕa-ama ta aŕiŕa-amameak euzkeldunak ixan eta zuben euzkera ez-jakiŕe ori, euzko-lagiz azkespenik eztaun lotsagaŕikeri gaiztetsigaŕija dok. ¿Ire gurasuak abeŕtzaliak eztozak, ala?

—Bai, abeŕtzaliak dira, euzko-jai gustijetan auŕenengo ibiliŕen diranak.

—Orduban euzkeraz ikasi gura eztozubenak, zeubok neba-aŕebok zarie.

—Ez jauna. Guri txiki-txikiŕatik etxian euzkeraz beti egin ixan ba'leuskuben, euzkeraz ikasiko geban. Baña gure etxekuak euzkereatzaz bein be eztira arduratu... Euzkerea baseŕiŕaŕen izkuntzatzat euki-ixan dabe beti...

¿Entzun dozu, irakuŕle? Eta ¿zer deritxazu? Abeŕtzaletasun ori, ¿bakana dala, ezta...?

Jakin dagixuben, ba, olangoxe abeŕtzale bakanez beteta aurkitzen da gauŕ Euzkadi'rik geyena. Eta olango abeŕtzaletasun bakanak irauten dauskun-aŕtian, gure abeŕi-ele gaxua atze-atzeka juango da.

Euzkel-ixenak, euzkel-abixenak bai, baña... ¡euzkel-gogua palta...!

URIBITAŔTE'TAŔ IBON.

«Agarel» il zaigu

"Kistaŕ on bat zan eta Abeŕiaren gudari sutsua."—M. Maryan.

Esangintasunaren bakaldundeŕitik etoŕi zan "Agarel" ogei urtedun osasuntsu, jakintsu, apal eta bildurti.

Apala ona zalako zan. Bildurtia beŕiz gu bizi geran bizi au ezagutzen ez zualako. Baita ere, bere azkatasunaren jabe iñoiz izan gabea ta iñoren esan era oltua zan aŕen bere Abeŕiatzaz zituan iritziari abertzale erara eultzitzeagaitik bere bizitzako bidea aldatu beaŕ izan zualako.

Dana zan beŕia, dana ezagutu gabea ta ikusi gabea "Agarel,'entzat bere Abeŕira biurtu beaŕa izan zuanean. Abeŕia ez, Abeŕia ezaguna zuan, ezaguna eta kutuna aspalditik. Baita Abeŕiaren izkuntza maitea ere.

Buru argiduna izanik, bat batera ikeŕi zuan bere egin beaŕa. Bizitzako itxaso zabala begiratu batean neurtu zuan. Itxaso zabal, sakon oŕetan jaikitzen diraŋ ekaitz ikaragaŕiak! Olatu aundi indartsu oyek euren atzapaŕ gogoŕetan aŕapatuta betiko ondatzen diran notintzak! Ur beltz oyetan ito ta gero ondartzetara itxasoak berak jaurti oi dituan gorputzak bota oi duten kiratza!!

"Agarel" langile aundia zan eta lanaren bitartez bizitzako itxaso zabal beltza zearkatu eta bere ertz edeŕetan dituan itxasateetan bere bizilekua bilatzeko erabakia artu zuan.

Zein itxasontzitan sartuko ete da "Agarel" bere elburua iristeko? Ara emen itxasontzitxoak margo gustietakoak, zuriak. urdiñak, beltzak. goŕiak. "Lana", "Itxaropena", "Argia", "Ekintza", "Maitetasuna", "Oñazea" izendunak.

Gogo alai-alayaz sartu zaŋ "Agarel" itxasontzian. Itxaropen aundiaz artu zituan aŕaunak eskuetan eta indartsu lanean asi. Arin zijoan, zuzen-zuzenean, beste batzuek sei urtetan egiten duten bidea bi edo iru urtetan egiteko eran. Itxasertzean berari begira geundenok "bai azkaŕ dijuala "Agarel" esaten gendun, "laister eldu beaŕ du oŕek itxasatera".

Bat batean ordea, "Agarel" eri, bere itxasontzia astundu egin zala iruditu zitzayon. Izan ere, nor da edo zer, bere ontzian lemaren ondoan zu-zutik dagoan zuriz jantzitako eŕeñu edo keriz ori ? Gauza ona ez, bere izate guztia estalita daukan eskero. Esku bategaz lema gogoŕ darama, eta beste besoa aginpide aundiz luzatuta. Ezer ikusten ez zayon aŕen ez dirudi bere izate gustian ez samurtasunik ez biguntasunik nabaitzen danik. Arpegia dirudian oŕetan baldiŕ begiŕik ba'du, ze gogorki ta zoŕotz begiratu beaŕ dioten "Agarel" gizajoari.

Maitagaŕiren bat? Bai gera! Geŕia bigunagoa eta tankera lirañagoa bai 'lituzke ere, baña... aundiegia da ta sorbalda zabalduna, indartsua ta ezurtsua, ertz gustiak zoŕotzak ditu eta egokitasunik ez. Gañera bera itxasontzian agertu danetik "Agarel,'ek otz dauka.

"Agarel" urte askotan iñoren esana egiten oitua zan da, Kereiz zuriak beragan aginpideren bat zuaa uste izan zuan. Eta iñondik ere ez zitzayon gogoratu aurka egiterik.

Ara or sortaldetik itxasate bat. Etxe danak edeŕak, leyaŕ margoduŋ disdiratsuak, lorategi ameskoŕak. "Atzegin degi" bere izena. An bizi ziranak bai izango zirala zoriontsuak! Oi, ura leku zoragaŕia!

—Ene, nere ontziaren lema daramazun ori, zuzen zaidazu ontzitxoa itxasate oŕetaraxe. Ez det iñoiz-ez-iñoiz oŕelako uririk ikusi. Bai ditut bertaŋ lagun batzuek. Eraman nazazu.

Eŕeño zuriak ordea besoa luzaturik, abotz gogoŕaz "Aŕaun! Aŕaun!" erantzun zion.

"Agarel,,'ek ez zion bere aŕenik beŕesan. Eta len baño gogotsuago aŕaunak arturik, aŕaunean asi zan, gogotsu, bulartsu, beti auŕera, gelditu gabe, atzegiñaren uria laister atzean utzi zuan arte.

Baña ara ordea beste itxasate oŕeŕ bat begien auŕean. Ez berorik eta ez otzik, ez iradutasunik, ez estukasunik, ez laŕiŕik ezagutzen ez dan uria. "Atzedengi" bere izena.

"Agarel" ordurako zerbait nekatua zaŋ da: —Ementxe gelditu nai nuke. —esan zuan, baña eŕeñu zuriak zoŕotz "Aŕaun!" —Nekatu egin naiz, ezin det geyago. "Aŕaun, Aŕaun!"

—Gaxorik nago. Ara estula egin detanean odolez goŕitu detaŋ zapia. —Aŕaun, Aŕaun, Aŕaun!".

Eta "Agarel" gizajoa, dana laŕitu ta, dana ezeztatuta, zer zegian ez zekiela aŕaunak arturik, al zuan guztian lanean asi zan. Ezin ordea, len bezin arin auŕera jo.

Ala ere, ikusi al izan zuan bere elburutzat artutako itxasatea. Ez atzegindegi, ez atsedendegi, nor bere izerdiaz irabasitako ogi gozoa janaz, pakepakean eta bare notin onak bizi oi diran uria.

Berandutu baño len uri artaraxe eltzeagaitik egin zituan indaŕak zearo beia jo erazo zioten. "Agarel" ordea laŕi ta estu bai zan ere eldu zan bertbertaraño, etxeak eta kaleak uŕe-uŕeaŋ ikusteraño, bertan bizi ziran bere lagun batzuekin itz egiteraño...

Ez zuan ausardirik izan ontzia zeramanari ezer esateko. Apal apalik begiratu egin zion, besterik ez.

Ontzitxoa zeramanak ordea beŕiz ere "Aŕaun, Aŕaun!" zezan. Noraño ete zeraman aŕaunlaŕi gaxoa? Eŕuki gabea zan benetan. Kereiz zuria. Eŕuki gabea ta ankeŕa!

Ez zuaŋ ordea "Agarel,,'ek aŕaunkada asko eman beaŕik izan. Bat batean, bere ontzi lagun zuriak iñoiz baño gogoŕago: Geldi! deitu zion da.

—Emen ez! Aŕen! Emen ez!—zion "Agarel" eŕukaŕiak ildakoen itxasateaŕen auŕez-auŕe bere ontzitxoa ikusi zuanean.

—Emen ez det gelditu nai. Aŕen' Guazen auŕera.

Uri artako ilunak eta ixiltasunak bere biotzari eman zioten estenkadaz, galdutako indaŕak bereganatu zituala uste izanik, gogoŕ sartu zituan aŕaunak urretan, baña auxe izan zan bere gorputz gaxoak egin zuan askeneko indaŕa.

Kereiz zuriak arin aingura jaurtiaz ontzia iñork ez igitu al izateko eran laga zuan.

Une artan nabaitu zuan "Agarel,,'ek bere biotzean Egileak egiten zion deya. "Atoz Neugana, Neugan atsedenduko zera ta."

Eta kristau ona bezela, bere zoria ontzat artu eta besarkaturik: "Bai, ene Jauna, bai natoŕ, ondo pozik ala ere" erantzun, eta bere inguruan zeudenak begiratu bigun batekin agurtuaz, oŕi asko erori zan iluntze bare batean Goiko Bakaldundeŕira juan zan.

AŔITOKIETA.

Deunen bixitzea

Anbortsi deuna, gotzaña

LOTAZILA-7'GN.

Milan'go Gotzain eta Doibatza'ren aldezle jakintsu onen ixena aldeŋ gustijetara zabaldu zan, batez-be Augustin deunaren biŕaŕtez. Galia'ko jauŕle-ixan zan Anbortsi eŕomaŕ zaldun ospetsubaren seme au jayo zanian, erle-moltso bat etxe-ondoratu ei-zan. Umetxu aren abo-ganian atsedendu ziran. Erlien eztena legetxe urtengo ziran, ba, deun jakintsu onen itzak.

Roma uri nausijan ikasi ebazan eleŕti-gai ta jakintza-gayak. Argi eta zuŕ gustijen aŕtian, be, lenengo malan eguan. Bere idazkijetan-eta erakusten emongo eban gero gastaruan ikasi ebanareŋ santzuba. Porba agintari-ordekuak arazo batzuren aŕtian Liguri eta Emili-luŕaldietako agintaritzea emon eutsan. Alde areitako biztanliak igaŕi eban aren baŕena zelakua zan. ¡Onetan onena! Geroxe, Porba ber-berak beste zeregin bat egin-erazo eutsan. Milan'go uri nausira juan edila, eskatu eutson eta kistaŕen aŕtian bakiak egin egijazala, gustijak ebiltzan, ba, amoŕuz beterik. Ankentzi gotzaña il zanian, baŕija autu gura eben, baña aŕiotaŕ zitelak etziran baketu. Lengua, be, euretaŕa zala-ta, baŕija autetsi gura eben.

Eldu zan eldu Anbortsi eta txadoneara saŕtu zanian itzaldi edeŕa egin eutsen. Bakia zer dan eta kistaŕak alkaŕ zelan maŕatu biaŕ daben atzaldu eutsoen. Eŕi baten bakia naspilduten daunak oben aundija egin daruala, esan eutsen. Baña itzaldijan ari zalarik, umetxu baten abotsa entzun zan: Anbortsi bedi geure Gotzaña! Eta eŕi osuak orixe eskatu eban. Beste biderik ezeguan: Milan'go Gotzain ixan biaŕko zan. Alako zeregiñik ezebala gura, ta aldendu zan, baña uritaŕak Bakaldunarengana juan ziran. Balendin kaxaŕak entzun ebezan Milan'daŕeŋ itzak eta ontzat aŕtu ebazan. Poztu zaŋ, bere ordezkarijak, ba, on-ona zirala igaŕi eban. Baña Porba, etzan gitxijago poztu. Milan'era juan zedila agindu eutsoniaŋ auxe esan eutson ba: Epaile-antzo barik Gotzain-antzo agertu zadi. Bakaldunaren eta eŕijaren gurarijak baŕdiñak zirala entzun eban Anbortsi'k eta ugutzau-barik egualako, Roma'ratu zan. Antxe jaso eban ugutza deuna eta zortzi egunian Gotzain bat! dagokijozan eskubidiak emon eutsezan.

Apal-apal zan eta azkenengotzat eukon bere buruba. Milan'era juan zanian kistaŕ zintzoen alde asi zan. Aŕiotaŕ zitelak itzaldijak egiŕen eutsezan eta Kisto'ren erakutsi garbijak Doibatza'ren altzuan baño ezegozala iñotsen. Beste askoren aŕtian Augustiŋ deunari egi au ikus-eragin eutson. Doibatza'k ez eban gitxi irebazi Apirka'ko seme aregaz.

Gartzen bakaldunari bixitzea kendu eutson Maxima'k eta onen auŕera juan zan Anbortsi. Oben laŕi a kendu-aŕte barau-egijala eskatu eutson. Eta eskari ari belaŕijak saŕtu eutsozalako, bakaldunari ezeutson jaramon geyago egin. Todosi bakaldunari, be, Milan'ko eŕtxadoneko atiak saŕatu eutsozan, Tesalonika urija, ba, gixaseme gustijak eraiŕ ebazan. Todosi'k erantzun eutson: Dabit bakalduna be, obendarija ixan zan. Eta Anbortsi'k erantzun eutsan: Obenean antzeko ixan zayakoz, ezta? negaŕ eta barauetan be, ixan zayakoz antz-antzeko".

Eta Todosi deunareŋ itzak ontzat aŕtu ebezan bakaldun arek. Doibatza'ren erakutsijak aldeztu-nairik ainbeste idazti edeŕ egin ebazan. Aldi areitan bixi ziran gixonen aŕtian, jakintsubenetariko bat bera ixan zan. Anbortsi jakintsu deunaren ixena beti ixango da goretsija. Aldi txaŕetan zaindu ebazaŋ Kisto'ren irakatsi gustijak. Bakaldunak-eta lagun yakozan, baña txiroen lagun samuŕa zan. Berkelis'ko Gotzaña'ren eskubetatik geure jauna-aŕtu ondoren il zan Milan'go uri nausi ta maŕtian. Orduz gero uri aren zaindaritzat autu eben.

MAÑARIA

"Agarel euzkel-idazle argijak iges-egin dausku. Udagoyeneko gau argi ixaŕtsu baten, Goiko Jaunak abots-gozoz maŕe-maŕero dei-egin eutson; eta Goikuaren dei gozuari erantzunaz, ludi zirtzil eta nastu-au beran-bera itxiŕa, donokirutz beingo baten egaztu zan.

Bere erijotziak eŕime tamaldu gaŕuz; abeŕkide bat eta euzkel-idazle bat gitxijago... Olan biaŕko zan, eta Jaungoikuaren guramenaz ondo gagoz...

"Agarel" gixajua, aspaldiz ezagutzen ixan dogu. "El euzkera del Duranguesado" ixenaz egiŕen iñarduban idaztirako gayak batzen etoŕiŕa, saŕi-saŕi egoten zan emen. Lan oŕetan joranez ebiŕan gaxua. Onetan eta aŕetan, lan asko egiŕen eban.

Oŕetarako gauza zaŕaen biŕa, lantzian bein, Mugaŕa aldeko basetxietara be juaten gintzazan, esakunak, bertsuak eta mendi-ixenak eta abar, baseŕiŕaŕen aboetatik entzuten; gai oŕetarako iŕuŕirik onenak basetxiak dirala-ta. Olantxe ixaŋ be, baŕiz, basetxetaŕen aboetatik gauza poliŕak eta egokijak edonoz urteten ziralako. Bakotxian bein, jente begiko areik, euren esakera baŕegaŕijakaz atseginduten gindubezan; eta, eurek baŕe ta gauk baŕe egiñaz, une gozua igaro-eragiŕen euskuben; eta biŕaŕtian, guk, idazti baŕirako uŕe-ale zaŕak pilatzen genduzan.

"Agarel" zintzuak, lan eta lan baño besterik ezeban egiŕen. "Jaun-Goikua eta Lagi-Zaŕa" ganako maŕetasunak igiŕuta ebiŕan... Elburuaganako maŕetasunak erabiŕan...

Kistaŕ ona, abeŕtzale zintzua ta idazle argija zan; eta buru argiduna ta jakintsuba zan aŕen, apal-apala zan; mutiko baten eran baŕeka-baŕeka itz-egiŕen eban beti. Ori zala-ta, neba bateri zor yakon maŕetasunez maŕetuten neban. Eta Josu onari, bere aldez saŕiŕan otoitz-egiŕen neutson.

Bere erijotziak alde batetik tamaldu ba-gaŕuz be, beste aldetik poztu be poztu egin gaŕuz... Erijotza deunaren biŕaŕtez, Jaunak Bera'gandu daulako...

Donokiko atsedenian aurkitzen bazara aurkiŕu "Agarel", Jaungoiko onari gure aldez otoitz egin; kistaŕ onak eta abeŕtzale zintzuak danok ixan gaŕezan eskatu ta eskatu... Euzkadi geure abeŕi kutunagaz ta euzkera geure ele edeŕagaz be ez aztu...

Eta, ludi ontakoen lagutzaren biaŕian aurkitzen bazara zeu baŕiz, geure otoitzak zeure gogo-aldez zuzendutako dira, zeure aldez eskatuko dogu, gomutan ixango zaŕugu... MAÑARIKO.

GAUTEGITZ DE ARTEAGA

PELOTA-TXAPELKETEA. — Pelotaririk ezkendualakuan egon gara. Ba, eŕi onetan eztago esateko, pelota-tokirik, lau-ofmadun, txaki-antzeko pelota--oki txatxaŕ bat ixan ezik. Eta, ara nun agertzen diraŋ Bizkai'ko Batzokijan Pelota-Txapelketarako iru moŕosko onexek:

Muniosguren'daŕ Markeliŋ ta Arza'taŕ Andoni eta, Aranburu'taŕ Jon Gurutz ordezko.

Ia, ba, mutiŕak, zeuben indaŕ eta trebetasunian daukaguz imiñiŕa geure itxaropeŋ gustija. Nai ta neyezkoa ezta irabazi-biaŕa, baña erakutsi zeuen al..

AKONG JUNAJUNA.

Kirol-jayak Errenderi

ERNANDORENA JAUNAREN ITZALDIA. — IGANDEZ LAISTERKETA BIKAÑA. — ZARAUZ'KO EIZAGIRRETAR JOSEBA MIRENA GIPUZKOA'KO TXAPELDUN. — ZARAUZTARRAK GABALLE. — ERALGUNTZA EDERRA. BESTE JAIAK.

LARUNBATEZ

Iragaŕi-ta zegon bezela igarotako larunbatez gabeko 9'tan itzaldi eder bat egin zigun Ernandorena'taŕ Todor jaunak.

Idazle txiro onen aurkespen txirogo baten ondoren jeiki zan Ernandorena jauna eta lenengo itzak oek izan ziran. Aŕiturik, saminduta gelditu naiz gaur goizean ene itzaldi onen iragarkia erderaz irakuŕi detanean. Eŕenderiaŕak ez al zerate euskeldunak? Esan zigun.

Ondoren jaŕaitu zuaŋ bere itzaldia igandeko jaiaren gaŕantzitasuna azalduaz eta zion kirol gaietan ere ezin genezake Madrid'era begira ditugula egon baizik Europa'runtz.

Praga, Estokolmo eta onelako uri aunditan lau urtetik irurogei bitarte guztiak egiten dute kirola ta gimnasia eta ofegatik len abenda kaxkaŕeko zan Suezia ikusten degu gaur Europa'ko abenda edo aŕaza sendoenaren jabe.

Eta ori, jaŕaitzen zuan an Euzkadi'n daukagun alkolismo'ko gaitzik ez daukatela bada guk, ekaitz oni guda gogoŕa egin nai ba diogu kirol bidetik zindo jaŕaitu bear degu.

Baita ere gaztedia abeŕi altzora ekaŕi eta bertan iraun arazteko kiroltzaletasuna biderik egokiena, eta aipatutako bi gauz oiegandik bakaŕik lan egin bear degu kirolen alde.

Euzkadi len ere kirol zaliа izan da, betikoa izan du kiroltzaletasuna eta gaur abeŕiaren oñaŕi dan gaztedia zaindu dezagun gogo guztia jaŕai bear diogu eŕenderiaŕoik zorionez ekin diozuten lanari. Eta beste oartxo batzuekaz amaitu zuan itzaldia.

Txalo ugari entzun zitun Ernandorena jaunak eta notintza aundia joan zan beragana zoriontzera.

Aurkesleak, Ernandorena'k esan zituan, euskeratzazko lenengo itzei onela erantzun zion.

"Bear beaŕeko gendun gaur zure itzaldiaren iragaŕia azaltzea eta nola euskeraz bidaldu ba gendun Donosti'ko izpaŕingiak garaiz iragaŕiko etziguten oŕetxegatik erderaz idatzi degu, bañan ziur egon Ernandorena jauna guri guk bialdutako idazkiak, euskerazkoak, garaiz azalduko dirala itz ematen ba digute ziur egon euskeraz idatziko degula, zergatik eŕenderiaŕok euskera benetan maite degu.

Eta berak erantzun zuan: Ez nekian zioa ori zanik, bañan etzerate oŕelako gauzak gertatzen zaiten bakaŕak Gipuzkoa'n, bañan ziur egon eŕenderiaŕak euskerari lagundu nai ezpadiote, guk sortuko degu lagunduko dioŋ izpaŕingia. Txalo ugari ondoren Euzko-Abendaren Eresekia abestuaz amaitu zan itzaldia. Batzoki'ko aretoa beterik zegon jendetza pozik irten zan.

IGANDEZ

Goizeko zazpitan sú-zirlan zarata eta txistularien eresi goxoak esnatu zitun eŕenderiaŕak. Goiz eresi bikaña jo ez bazuten ba bederatzi txistularik.

Bederatzitan jende ugari bildu zan Eleiz Nagusian ildako kiroltzalien gogo aldez'ko Meza entzutera. Eleiza oso osoa notiñez betea zegola esatea naikoa da.

Cross-Txapeltza.— Amarterdietako asi zan jendea Batzoki inguruan eta kale guztietan biltzen Eŕenderi oso eta inguruko abertzale askó bildu zan.

Amaiketan G. P. B.'ko lendakari dan Ernandorena'taŕ Todor jaunak emon zien irteera beŕogeitamaŕ koŕikalariei.

Lenengotik garbi ikusten zan zarauztaŕen yayotasuna, ura zan laisterka egiten. lan pixka bat eman ziena Kepa Donea'ko Aŕizabalaga izan zan au ere ez baita nolanaiko laisterkaria. Txalo ikaragaŕien artean Eizagiŕe'taŕ J. M. zarauztar yayoa sartu zan lenengoz Gipuzkoa'ko Txapeltza bereganatuaz, bigaŕeŋ Unzueta'taŕ Isidor eta irugaŕen Soraluze'taŕ P.'ok ere zarauztaŕak. Garbi ikusten da zarauztaŕen gurenda, ezin aundigoa lortu.

¡Artu ezazute gure zorionik maitekoŕena zarauztaŕak, eta jaŕaitu bide zuzen ortan Zarauz zuen eŕi maitearen izena goralduaz.

Ona emen laistertza amaitu zuten 33 koŕikalarien izenak:

1. Eizagiŕe'taŕ J. M., Zarauz'koa.
2. Unzueta'taŕ Isidor, Zarauz.
3. Soraluze'taŕ P., Zarauz.
4. Aŕizabalaga'taŕ I., Pasai Kepa D.
5. Laŕañaga'taŕ A., Zestona.
6. Galdos'taŕ B., Legazpia.
7. Esnal'daŕ I., Zarauz.
8. Zabaleta'taŕ J., Antiguo.
9. Jonsansoro'taŕ K., Aya.
10. Zorzano'taŕ K., Pasai Antxo.
11. Ayestaran'daŕ B., Aya.
12. Guridi'taŕ S., Legazpia.
13. Lekuonataŕ I., Lezo.
14. Hernandez'taŕ M., Eŕenderi.
15. Fraile'taŕ R., Eŕenderi.
16. Zelarain'daŕ J., Añorga.
17. Manero'taŕ K., Eŕenderi.
18. Azkarate'taŕ J., Pasai Donibane.
19. Zubizaŕeta'taŕ P., Eŕenderi.
20. Madina'taŕ D., Zumaŕaga.
21. Urigoitia'taŕ J., Eŕenderi.
22. Esnal'daŕ J., Donostia (E. G.)
23. Kuesta'taŕ P., Donostia
24. Zeŕada'taŕ M., Antiguo.
25. Aŕizabalaga'taŕ J. Pasai
26. Martin'daŕ D., Pasai
27. Menóiburu'taŕ J. A., Eŕe
28. Intziarte'taŕ Laurentzi, Eŕe
29. Maritxalar'taŕ J., Pasai
30. Olaskoaga'taŕ K., Eŕender
31. Otxoa'taŕ J., Eŕenderi.
32. Beizama'taŕ K., Donostia
33. Besga'taŕ M. Eŕenderi.

Iru txolentzako puntuazioa zan:

"Eŕenderi'ko Batzoki'koa" karientzat:

1. Zarauz: 1-2-3: 6 punto.
2. Eŕenderi: 14-15-17: 46 pu
3. Pasai Antxo: 10-26-29: 6
4. Donostia: 22-23-32: 77 p

"Armesto-Txola", lau laister
1. Zarautz: 1-2-3-7: 15 pun
2. Eŕenderi: 14-15-17-19: 6

"Eŕenderi'ko E. G.'ko txola" terkarientzat:

1. Eŕenderi: 14-15-17-19-21:

Rizagiŕe'taŕ J. M. txapeldun eta Emakume Abertzale-Batza txoa irabazi zuan.

"Poŋtika,,'n lenen igarotzen saria Unzueta'taŕ Isidor'ek

"Eup..." taldearen medala 'taŕ I.'ek, eta Eikuraki jaunaren aundia Fraile'taŕ Rogelio'k.

Sari banantzekoan koŕikalari oso txalotuak izan ziran eta amaitu zan goizeko jaia.

AŔATSALDEZ

Iruak aldera asi zan jendea tzen, ura saloiaren edertasuna aldera. Garai ontan "Eup..." iru eusko-abesti eder abesti txalotuak izan ziran. Ondoren talde, bi abeslari Bayona'ra seikin abestu bear izan zuan, ederto abestu oek ere txalo zituzten.

Ondoren 4'tan guztiok goruntreta,,'ra ekin genion, ederki pelota-tokia, jende asko, bai bai gizaseme. Emakumeak ezer gabe sartzea onuragaŕi izango tzait.

Partidu eŕeŕak izan ziran, lenengoa: Irundar ta lasarteaŕak jo zuten ta bardintza asko izan lasarteaŕak irten ziraŋ garaile, 15'ean gelditurik. Lasarte'ko bikak eman bear ditu txapelketa oxen uste degu.

Bigaŕen Antiguo'koen kontra aŕak genituŋ eta egia esan naiz dizabal'ek borondate aundiakin Beŕa gutxi lagundu ziolako guzuten eta egi esan Antiguo'ko da onenetakoa. 22 ta 11 gelditu kenik bigaŕeŋ malako altzatarak 'ra utzi zituzten antiguotaŕak.

Partidoak amaitu bezin azkar ten txistulari neka-ezin ta Mugertza'taŕ S. ta Joseba Anizan zan antxe dantza ta sarata etak arte. (Mila eskeŕ Mugertzuak beti eŕenderiar, ezta ala?).

Azkenik kirol-jai edeŕaren beŕogeitamar gazte bildu giñan apaltzen. Ura aparia motelak. batez Juanito konserjea goraldezuten. ¡Betikua du fama ondo bai, bai, bai!

Izan umorea, abestiak eta Olaskoaga'taŕ Sabin bertsolari zela konsagratzen ari zaigu. Ayeak, al ba det aste ontan izpaŕiŋduko ditut.

Gure gazte jendea amaikak alderatu zan, bañan jator, gizontasuntsi zuteŋ naiz askok 17 urte beteez. Eta gaurkoz luzetxoa dijoa rik ez, biyar edo etzi beste tziko degu gure igandeko jai tzaz.

A gaurkoz besterik bai, eskeŕak guri lagundu eta laŕi etoŕi diran guztiei.

Eta orain gazteak ia kirol bidejaŕaitzen degun.

Goazen danok jel-alde
Uri, baso, mendi...

ANI

Goikoetxea'tar

Euzko-erako muebletan lenguztijetakuak dagoz Etxe au ikez egon.

Uzkurtza ederlanak, oindijak, txubak, aurkijak eta abar. Herran 7'gn. Gazteiz'en.

Irakurri EUZ